

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ASTIGARRAGAKO UDALA

Iragarkia

2025eko maiatzaren 27an egindako ohiko Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez onartu zuen, euskara ikasteko dirulaguntza oinarriak eta deialdi publikoa egitea.

Dirulaguntza deialdia: Euskara ikasteko laguntza deialdia.

1. oinarria. Xedea eta aplikazio eremua.

Oinarri hauen xedea da 2024-2025 ikasturtean edo 2025eko udan euskaltegi homologatu batean euskara ikasten edo hobetzen jardun duten astigarrarrei Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (Habe) eman diezaizkiekeen dirulaguntza osatzea eta 2025-2026 ikasturterako dirulaguntza aurreratzea.

Horretarako, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta udal-urrekontuko 1 0600.480.01.335.00 2025 zenbakiko kontu sailan 32.400 euro ditu Udalak.

Jasotako eskaeren kopurua dela-eta beharrezkotzat jotzen bada, zenbateko hori handitu ahal izango da, aurrekontu-kredituak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatu ondoren, eta ez da beharrezkoa izango beste deialdi bat egitea.

2. oinarria. Onuradunak.

Dirulaguntza lerro honetarako onuraduntzat honako hauek hartuko dira:

Pertsona fisikoak ondoko baldintzen arabera:

* Eskaera egiterakoan Astigarragan erroldatuta egotea edo, adin txikikoen kasuan, gurasoetako bat behintzat hala egotea.

* Udalarekin zorrik ez izatea.

* 16 urte beteta izatea eskaera egiten denean.

* Gutxienez, eskolen % 85eko asistentzia edota ikasturtean, gutxienez, urrats bat gaintitzea.

* Aporbetxamendu ona izatea.

* Egin beharreko ebaluazio probak egitea.

* Haberi dirulaguntza eskatzea, kasu hauetan:

— Haberen komunikagarritasun-mailetako bat euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatueta ebaluazioan gainditu dutenek.

— Haberen egiaztatze-deialdietan agiria eskuratu dutenek.

— Maila horietako baten baliokidea lortu dutenek.

* Euskaltegi matrikula ordaintzea (dirulaguntza aurreratzea eskatu dutenek izan ezik); euskaltegiak ezarritako epearen barruan.

— Dirulaguntza aurreratzea eskatzen dutenek, goian aipatutakoez gain, egoera ekonomiko zailean egotea frogatu beharko dute (6. oinarrian adierazitako dokumentuak aurkeztuta).

AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA

Anuncio

La Junta de Gobierno Local celebrada el 27 de mayo de 2025 aprobó por unanimidad las bases específicas y la convocatoria pública de las subvenciones para aprender euskera.

Convocatoria de ayudas: Subvenciones para aprender euskera.

Base 1.ª Objeto y ámbito de aplicación.

Las presentes bases tienen por objeto regular la convocatoria para complementar las subvenciones que el Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos (Habe) a los y las astigarrarres que estudien euskera en un centro homologado durante el curso 2024-25 o verano de 2025 y el adelanto de la subvención para el curso 2025-2026.

Para ello, el Ayuntamiento cuenta con 32.400 euros en el Plan Estratégico de Subvenciones y en la partida 1 0600.480.01.335.00 2025 del presupuesto municipal.

En el caso de que el volumen de solicitudes recibidas así lo aconseje, dicho importe podrá ser incrementado, previa modificación de los créditos presupuestarios y del Plan Estratégico de Subvenciones, sin que sea necesaria una nueva convocatoria.

Base 2.ª Personas beneficiarias.

Tendrán la consideración de beneficiarias de esta línea subvencional las siguientes:

Las personas físicas según las siguientes condiciones:

* Estar empadronado-a en Astigarraga o, si se es menor, que lo esté la madre o el padre.

* No tener deudas con el Ayuntamiento.

* Tener cumplidos 16 años cuando se solicite la ayuda.

* Acreditar una asistencia mínima del 85 % o haber superado por lo menos un nivel.

* Buen aprovechamiento del curso.

* Realizar las pruebas de evaluación correspondientes.

* Solicitar subvención a Habe en los siguientes casos:

— Haber superado la prueba de evaluación de un nivel comunicativo de Habe en un euskaltegi o centro homologado de autoaprendizaje.

— Haber obtenido certificado mediante convocatorias de acreditación de Habe.

— Haber acreditado algún nivel equivalente a los citados.

* Haber realizado el pago de la matrícula del euskaltegi (salvo las personas que solicitan el abono adelantado de la matrícula); dentro del plazo establecido por el euskaltegi.

— Las personas que soliciten el abono anticipado de la matrícula, además de los requisitos mencionados, deben de acreditar que están en una situación económica difícil (presentando la documentación señalada en la base 6.ª de la presente convocatoria).

— Ikasturte amaieran gainontzeko baldintzen agiriak aurkeztu beharko dituzte (asistentzia eta urratsak gainditzeari dagozkionak) eta hala egiten ez bada, edo baldintza horiek bete ez, edo behar bezala justifikatzen ez badira, edo Udalak arrazoiak ontzat ematen ez baditu, eskatzaileari hurrengo hiru urteetan mota honetako laguntzarik ez zaio onartuko.

3. oinarria. Diruz lagunduko diren jarduerak.

Euskara ikasi edo hobetzeko 2024-25 ikasturteko ikastaroak, 2025eko udako ikastaroak eta 2025-26 ikasturteko ikastaroak lagunduko dira diruz.

4. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.

— Oro har, matrikularen % 75.

— Berariaz, matrikularen % 100, ondorengo baldintzaren bat betetzen dutenei:

1. Oinarrizko errenta edo udalaren larrialdi laguntza jasotzea, edota deialdiko 6. oinarriak tarte bakoitzerako zehazturiko errentatik beherako diru-sarrera izatea.

2. Langabetu, jubilatu, erretiratu, pentsiodun edo ikasle (unibertsitatea/lanbide heziketa) izatea.

3. Desgaitasun aitortua izatea, 0-12 urte bitarteko haurren guraso edo legezko tutore izatea edo familia ugariako kidea izatea.

4. Herrian merkatari edo ostalari gisa lan egitea.

5. A0 edo A1 mailako ikasle izatea edo azken hiru urteetan 3 maila gainditzea.

Dirulaguntza aurrez jasotzea eskatu bada, dirulaguntza zuzenean dagokion euskaltegiari ordainduko zaio bi epetan: % 70 abenduan (2025) eta beste % 30a martxoan (2026).

Eskatzaileak Habek eskainitako laguntzaren bat jasotzeko eskubidea izanez gero, udalak onartutako laguntzatik Haberegangandik jaso beharrekoa kenduko du.

Laguntzatik kanpo geratzen dira garraio eta ostatu eta otordu gastuak. Eta eskatzaile bakoitzari, matrikulazio aldiko gehieneko laguntza emango zaio:

— 2024ko urritik 2025eko ekainera; 600 euro, gehienez ere.

— 2025eko uztailaren hasieratik irailaren bukaerara; 200 euro, gehienez ere.

Dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, baina gainfinantzaketa debekatuta dago.

5. oinarria. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak, 2025eko urriaren 10era bitartean aurkeztu ahal izango dira (deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera).

Eskaerak aurkeztu beharko dira Dirulaguntzen Udal Ordenantzen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera. Modu horretan aurkeztu ez direnak, ez dira aintzat hartuko.

6. oinarria. Eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

Dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

— Eskabide normalizatua (E011).

— Nortasun Agiriaren fotokopia.

— Euskaltegiaren ziurtagiria. Ziurtagiri horrek ondoko informazioa jaso beharko du: bertaratze-portzentajea eta ikastaroaren hasierako eta bukaerako maila, ikaslea Haberen azterketetara aurkeztu den ala ez, eta, hala balitz, lortutako emaitza.

— Al finalizar el curso, deberán de aportar el resto de documentación (asistencia, niveles superados...). Si no se cumplen dichos requisitos, no se justifican debidamente o el Ayuntamiento entiende que no es una justificación válida, la persona solicitante no podrá acceder a este tipo de ayudas los siguientes tres años.

Base 3.ª Actividades que se subvencionan.

Se subvencionarán los cursos para aprender o mejorar el euskera durante el curso 2024-25, el verano de 2025 y el curso 2025-26.

Base 4.ª Cuantía de la subvención y gastos subvencionables.

— En general, el 75 % del coste de matriculación.

— 100 % del coste de matrícula abonada; siempre que se cumpla con alguna de las siguientes condiciones:

1. Ser beneficiaria de la ayuda de emergencia municipal, percibir la Renta Básica o tener ingresos inferiores a la renta especificada en la base 6.ª de la convocatoria para cada tramo.

2. Ser persona desempleada, jubilado/a, pensionista o alumno/a (universitario o de formación profesional).

3. Tener reconocida la condición de discapacidad, ser padre o madre de niños/as entre 0-12 años o ser miembro de familia numerosa.

4. Trabajar como comerciante o en el sector de la hostelería.

5. Ser alumno/a de A0 o A1 o haber superado tres niveles en los tres últimos años.

Si se ha solicitado el pago anticipado de la matrícula, la subvención se abonará directamente al euskaltegi donde se haya formalizado la matrícula. Y el abono se hará en dos plazos, 70 % en diciembre (2025) y el otro 30 % en marzo (2026).

Si la persona solicitante tiene derecho a percibir la subvención de Habe, de la ayuda ofrecida por el ayuntamiento se restará la cantidad que Habe otorgue.

No serán objeto de ayuda los gastos de transporte, alojamiento o manutención. Y cada solicitante recibirá una ayuda máxima por periodo de matriculación:

— De octubre de 2024 a junio de 2025, ayuda máxima de 600 euros.

— De principios de julio a finales de septiembre de 2025; ayuda máxima de 200 euros.

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquiera de las Administraciones o entes públicos o privados, si bien queda prohibida la sobrefinanciación.

Base 5.ª Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

Las solicitudes de las subvenciones previstas en esta convocatoria podrán presentarse hasta el 10 de octubre de 2025 (a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa).

Las solicitudes deberán presentarse de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 17 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones. Las que no se presenten de esa forma no serán tenidas en cuenta.

Base 6.ª Solicitud y documentación a presentar.

Documentación a presentar:

— Instancia normalizada (E011).

— Fotocopia del DNI.

— Certificado del Euskaltegi que acredite el porcentaje de asistencia del alumno-a, el nivel al inicio y al final del curso, si el alumno-a se ha presentado a los exámenes de Habe y en caso afirmativo el resultado obtenido.

– 2024-25eko ikastaroaren matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria edo, dirulaguntza aurrez jasotzea eskatu bada, 2025-26 ikasturtean matrikulatu izanaren ziurtagiria.

– Haberen dirulaguntzen 2025eko deialdian eskaera aurkeztu izanaren agiria.

Aurrekoez gain, matrikularen % 100a jasotzea edota dirulaguntza aurrez jasotzea eskatu bada, kasuan kasu:

a) Gutxieneko diru-sarrera bermatzeko errenta jasotzen dela ziurtatzen duen agiri ofiziala edo 2024ko ekitaldiari dagokion errenta-aitorpena edo Aldundiaren ziurtagiria.

– Bizitza unitateko kide guztien urteko errentak ez du gainditu beharko deialdian tarte bakoitzerako ezarritako zenbatekoa:

– El justificante de pago del curso 2024-25 o, en el caso de haber solicitado la subvención anticipada, justificante de haberse matriculado en el curso 2025-26.

– Justificante de haber presentado la solicitud en la convocatoria de subvenciones de Habe de 2025.

Supletoriamente, para percibir el 100 % de la matrícula o si se ha solicitado la subvención anticipada, según corresponda:

a) Documento oficial acreditativo de la percepción de la Renta Básica o declaración de la renta correspondiente al ejercicio 2024 o certificado de la Diputación.

– La renta anual de las personas de la unidad convivencial no podrá superar la cuantía establecida en la convocatoria de cada tramo:

Bizikidetzatza unit. kideak	2024ko errenta			
1				< 1,59 LGS
2			< 2,36 LGS	2,37 LGS-tik 2,62 LGS-ra
3		< 2,25 LGS	2,26 LGS-tik 2,51 LGS-ra	2,52 LGS-tik 2,77 LGS-ra
4	< 2,17 LGS	2,18 LGS-tik 2,43 LGS-ra	2,43 LGS-tik 2,68 LGS-ra	2,69 LGS-tik 2,94 LGS-ra

LGS: Lanbide arteko gutxieneko soldata.

N.º personas unid. convivencial	Renta 2024			
1				< 1,59 SMI
2			< 2,36 SMI	2,37 SMI - 2,62 SMI
3		< 2,25 SMI	2,26 SMI - 2,51 SMI	2,52 SMI - 2,77 SMI
4	< 2,17 SMI	2,18 SMI - 2,43 SMI	2,43 SMI - 2,68 SMI	2,69 SMI - 2,94 SMI

SMI: Salario Mínimo Interprofesional.

b) Langabezia ziurtagiria, matrikula ordainagiria (unibertsitateko edo lanbide heziketako ikasleek) edota jubilazio edo pensiodun ziurtagiria.

c) Desgaitasun ziurtagiria, familia liburua (12 urte bitarteko haurren guraso edo legezko tutoreek) edota familia ugariaren txartela.

d) Merkatari edo ostalari gisa lan egiten dela ziurtatzen duen agiria.

e) Euskaltegiko maila-ziurtagiria edo azken hiru urteetan gainditutako mailen ziurtagiria.

– Eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, xede bere-rako eskatu edo jasotako beste dirulaguntzei buruzkoa.

– Dirulaguntzen ordenantzen 15. artikuluan eskatutako gainerakoak.

Udalak, eskatzaileak horretarako baimena emanez gero, Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez honakoak egiaztatuko ditu:

– Foru Ogasuna - Zerga-betebeharrak ordainduta izatea.

– Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko ordainketa-betebeharrak egunean izatea.

Eskatzaileak ez badio Udalari baimena ematen horiek zuzenean egiaztatzeko, dagokion ziurtagiri eta agiriak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza eskaerarekin batera.

Izaera pertsonaleko datuak babestu eta erabiliko dira arlo horretako araudiak eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzen 15.4 artikuluari jarraiki.

b) Certificado de desempleo, recibo de matrícula (alumno/a universitaria o de formación profesional) o certificado de jubilación o pensionista.

c) Certificado de discapacidad, libro de familia (madres, padres, o tutores/as legales de menores de hasta 12 años) o título de familia numerosa.

d) Certificado de actividad como comerciante o en el sector de la hostelería.

e) Certificado de nivel del euskaltegi o certificado de niveles superados en los últimos tres años.

– Declaración responsable sobre solicitudes realizadas o percibidas para el mismo objetivo de esta convocatoria.

– Los demás documentos exigidos en el artículo 15 de la Ordenanza de Subvenciones.

El Ayuntamiento, previa autorización del solicitante, comprobará a través del nodo de interoperabilidad Nisae:

– Hacienda Foral - Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.

– Tesorería General de la Seguridad Social - Estar al corriente en las obligaciones de pago a la Seguridad Social.

En el caso de que la solicitante no autorice al Ayuntamiento la comprobación directa de los datos, deberá aportar junto con la solicitud de subvención los certificados y documentos correspondientes.

La protección y tratamiento de los datos de carácter personal se realizará conforme a la normativa vigente en la materia y al artículo 15.4 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

7. oinarria. Akats zuzentzea.

Eskaerak deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesatuari gehienez 10 laneguneko epe luzaezin batean zuzentzeko eskatuko zaio, eta gainera, egiten ez badu, bere eskaerari uko egin diola iritziko zaiola jakinaraziko zaio, aurrez Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan eta dirulaguntzen udal ordenantzaren 16. artikuluan aurreikusten dituen baldintzen arabera erabakia hartuta.

8. oinarria. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak.

1. Udal Ordenantzaren 19 artikuluari jarriki, Euskara eta Hezkuntza saila arduratuko da eskaera izapidetzeaz.

2. Deialdi honetako 3.000 eurotik gorako dirulaguntzak tokiko gobernu batzarrak ebatziko ditu, eta gainerako ebazpenak alkatearen dekretuz onartuko dira.

3. Laguntza-eskabideak sarrera-ordenaren arabera izapidetuko dira, sarrera data eta orduaren lehentasun-hurrenkera jarraituz, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren eta 2025 ekitaldiko aurrekontuaren arabera kreditu erabilgarria amaitu arte.

9. oinarria. Onuradunen betebeharrak.

Onuradunak betebeharrak hauek ditu:

Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 21. artikuluan adierazitakoak eta deialdi honetako 2. eta 6. oinarrietan adierazitakoak.

10. oinarria. Ordainketa.

Laguntzen zenbatekoa ordainduko da Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 22. artikuluen arabera.

Ordenantzan aurreikusitako aurrerakinak onartzeko, aurrez berariazko eskaera egin beharko da, dirulaguntza eskaerarekin batera, edo aurrerago.

11. oinarria. Justifikazioa.

Laguntza justifikatu beharko da Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 23. artikuluari jarraiki.

Horrez gain, onuradunak 2.oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituela justifikatu beharko du (6. oinarrian adierazitako dokumentuak aurkeztuta).

12. oinarria. Ez betetzea, dirua itzultzea eta zehapen espediente.

Jasotako kantitateak itzultzea eta dagokien atzerapen interesa eskatzea bidezkoa izango da, Dirulaguntzen Lege Orokorren 37. artikuluan araututako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren edota oinarri hauetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

Diru itzulketa egingo da udal ordenantzaren 25. eta 26. artikuluen arabera.

Halaber, ez betetzea, Dirulaguntzen Udal Ordenantzaren 27. artikuluen arabera, arau-haustetzat jo daitekeenean, udalak dagokion zehapen espedientea izapidetuko du, ordenantzaren 28 eta hurrengo artikuluei jarraiki.

13. oinarria. Araubide osagarria eta interpretazioa.

Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan honako araubidea aplikatuko da: Dirulaguntzen Udal Ordenantza, Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hori garatzen duen erregelamendua.

Alkatetzak oinarri hauek modu egokian aplikatzeko eta interpretatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko ahalmena du. Eta horrek hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

Base 7.^a Subsanación de defectos.

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en las bases de convocatoria, se requerirá a la interesada para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días hábiles, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistida de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y el artículo 16 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

Base 8.^a Órganos competentes para la tramitación y resolución del procedimiento.

1. El Departamento de Euskera y Educación será el encargado de tramitar la solicitud, que se realizará de acuerdo con el artículo 19 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

2. Las subvenciones cuya cuantía supere los 3.000 euros se resolverán por la Junta de Gobierno Local y el resto se resolverá por Decreto del Alcalde.

3. Las solicitudes se tramitarán por orden de entrada, fecha de entrada y orden de prelación horaria, una vez comprobado el cumplimiento de los requisitos establecidos en las presentes bases y hasta el agotamiento del crédito disponible según el presupuesto municipal del ejercicio 2025.

Base 9.^a Obligaciones de las personas beneficiarias.

Son obligaciones de la persona beneficiaria:

Los señalados en el artículo 21 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones y en las bases 2.^a y 6.^a de la presente convocatoria.

Base 10.^a Pago.

El importe de la ayuda se abonará de acuerdo con el artículo 22 de la Ordenanza Municipal de la subvención.

La aprobación de anticipos previstos en la Ordenanza requerirá la previa solicitud expresa, junto con la solicitud de subvención o posteriormente.

Base 11.^a Justificación.

La subvención se deberá de justificar de acuerdo al art. 23 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones.

Asimismo, la persona beneficiaria deberá justificar el cumplimiento de los requisitos señalados en la Base 2.^a (presentando la documentación señalada en la Base 6.^a).

Base 12.^a Incumplimiento, reintegro y expediente sancionador.

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas y la exigencia del correspondiente interés de demora en los supuestos regulados en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones, así como por el incumplimiento de las condiciones establecidas en la Ordenanza Municipal de Subvenciones o en estas bases.

El reintegro se realizará conforme a los artículos 25 y 26 de la Ordenanza municipal.

Asimismo, cuando el incumplimiento pueda ser constitutivo de infracción conforme al artículo 27 de la Ordenanza Municipal de Subvenciones, el Ayuntamiento instruirá el correspondiente expediente sancionador, que se tramitará de acuerdo con los artículos 28 y siguientes de la Ordenanza.

Base 13.^a Normativa complementaria e interpretación.

En todo lo no previsto o recogido en las presentes bases, las subvenciones se regirán por: la Ordenanza Municipal de Subvenciones, por la Ley 38/2003 General de Subvenciones y por el reglamento que lo desarrolla.

La alcaldía queda facultada para dictar cuantas órdenes e instrucciones resulten necesarias para la adecuada interpretación y aplicación de estas bases. Sus acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y serán ejecutivos desde su adopción.

14. oinarria. Laguntzen izaera.

Laguntza hauek izaera administratiboa dute, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie udalak kudeatzen dituen dirulaguntzekiko jurisdikzio-eskumena.

Astigarraga, 2025eko maiatzaren 28a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (4045)

Base 14.^a Naturaleza de la subvención.

Estas ayudas tienen naturaleza administrativa, correspondiendo a los Tribunales Administrativos la competencia jurisdiccional sobre las subvenciones gestionadas por el Ayuntamiento.

Astigarraga, a 28 de mayo de 2025.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (4045)